

# EGIYAK.

¿Aldakizute zergatik dagon  
orrelako triste gaur Juan?  
—¡Uste gabian patrikarako  
diruak zaizkalako juan!

Pillipe: ¿zertan ez intzan atzo  
lagun arterañon jachi?  
—¡Nere andriak ziradelako  
atia giltzakiñ ichi!

Mañueli ere zerbait gertarik  
ez ukan geigo jiratu;  
—Bere arrebak ziyozkalako  
bi patrikarak miratu.

An̄ton-i berriz beren echian  
bizi duten neska zarrak,  
aserraturik kendu omen zizkak  
bart arratsian bizarrak.

.....  
¡Aben gisara gertatzen zaye  
oker dabilzan danari!  
¿Etzayo bada segitu bear  
Beti bide zuzenari?

JOSÉ ARTOLA.